

Negu gorria berriz ere kurduentzat?

Kurdu zintzoak, kurdu gaiztoak” izenburu bikaina eman zion Kevin McKiernan dokumentalgileak estatutik gabe nazio handienari buruz egindako lanari. AEBen ikuspegitik, Turkiari matxinatu zaizkion PKKko kurduak “terroristak” dira, Saddam Hussein aurre egin zioten peshmergak berriz, askatasunaren aldeko borrokalariak.

Gauzak horrela, Irakeko gerran kurduak estatubatuarrei emandako babesak eta Turkiaren jarrerak (AEBei turkiar lurraldea eta aire-espazioa erabiltzea debekatu zien) behin betiko koiuntura aldaketa iradoki zieten aditu batzuei. Haizea kurduen alde zegoela zirudien: munduko nagusiaren lagun, Israelen ere une goxoan, Turkia AEBekin muturtuta, eta kurduen beste bi zapaltzaileak (Iran eta Siria) Washingtonen “gaiztoenen” zerrendan. Munduko bazter nahasi horietan proxy gringoa osatzeko aukera paregabea zen, oraingoz estatu propiorik aldarrikatu ez arren.

Udaberri goxoa beste behin amaitzeaz egon liteke, horratik. AEBek aliatu berrien eta zaharren artean aukeratu behar izan dute, eta Turkiari laguntza eman diete Hego Kurdistanen gordetzen ziren gerrillarien aurkako erasoan. Bidenabar, mezu argia bidali diete Kurdistango agintariei: onartu dau-



INIGO AZKONA

kazuen autonomia eta ez molestatu lar. Turkiaren erasoaren atzean beste apustu bat dago funtsean: kurduen autonomiari dion ezinikusia. Eta Kirkuk petrolio-hiria Kurdistan autonomoan sartzeko arriskua, ekonomikoki emango liokeen aberastasuna dela eta.

Irakeko Konstituzioaren erreferenduma 2007ko amaieran egin behar zen, baina atzeratu da, aspaldi argi zegoen legez. Uztailerako osatu behar zen errolda oraindik ez da egin. Ofizialki sei hilerako atzeratu da, baina ekainerako ere egiterik izango den zailantza asko dago. Kurduei laguntzeko AEBen azken zioa ere —segurua zen inguru bakarrean beste gatazka bat ez piztea— aldatu dela dirudi: Kurdistan autonomoan ez, baina azken hileetan Kirkuk inguruko eskualdean asko ugaltu dira, xiiten hegoaldean eta Bagdadaren bertan nabarmen apaldu diren artean. Al-Kaidari leporatu dizkiote batzuek, baina Turkiako zerbitzu sekretuen esku beltza ere aipatu da.

Gauzak horrela, geroz eta kurdu gehiagok esan du, ekainerako erreferendumik egin ezean, automatikoki bere autonomiara sartu beharko lukeela Kirkuk. Apustu gogorra da, baina kanpoko laguntza ez datorrenean, urratsak norberak ematen jakin behar da. Aspaldi ikasi zuten mendiak bakarrik dituztela lagun. ■

«
Turkiaren erasoaren atzean
beste apustu bat dago funtsean:
kurduen autonomiari dion
ezinikusia
»

HIRUKO TXIKIAN
Joxemari Ostolaza



Beranduegi datorkio kalte-dunari kalte-onarpen soziala. Eta ez beti. Bote-rearen bertsio ofizialekin siesta lasai egiten duena, nekez iratzarriko du Bergarako epaite-gira jo duen lekukoarenak, Igorren eta Mattinen atxilotek-taren bertsioa, Rubalcabaren ipuin inpuena gezurtatu duena. Eta bere burua aurkezteaz bat frogatu badu ere burmuina bere lekuan daukala, nekez sinets dezaket entzun dion epaileak berea behar tokian izanen duenik. Arrestatu eta mendira eraman zituzten Zabaltzarena gogoan. Hauek bai, hauek errekan hartu zuten komisaldegiko aperitiboa. Erosoagoa zaigu Rubalcarena onar-

Beti berandu

tzea, garai batean GALen eta Manuel Ballesterosenaren antzera. Orain edonork onartzen ditu haien ankerkeriak diktadura bati zegozkiela, demokrazian ezin onartuzkoak zirela. Berantegi. Eta berriro ere, tortura katea haustea burmuina lekutua duten epaile lotsagabeen esku dago, boterearen beroan bizi diren horien esku. Atxilotzeak eta komisaldegia automatikoki tortura dakarrela eskarmentuz dakigunontzat, Igorrena eta Mattinena ohiko inpunitearen neurritz kanpokoa izan da, kalkularen errua. Eskua joan zaie. Konjeladorean sartu eta deskonjelatzeko gu, jada, ez gara hemen izan-go. Eta diktadurarik gabeko demokrazia noizko? ■